



Uribetxenagusia (-a) etxebizitza

Aldacrak: Uribe Palazioa

Ahozkoa: Kátxarrona / Uribe / Tabérnie



43° 9' 59"

2° 33' 30"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

"... la casería rústica titulada Echenausia o principal de Uribe... radicante en jurisdicción de la Anteiglesia de Berriz,... comprende todo lo que ocupa el edificio y antusanos noventa y ocho estados poco más o menos, equivalentes a trescientos setenta y dos metros setecientos noventa y dos milímetros de cabida, y la que se compone de sus correspondientes pisos, cuerdas, divisiones y habitaciones..."
DJE 2/248 or. (1870)

Dokumentazioaren arabera, Uribe auzoko etxe nagusia dugu honako hau. Bizkaiko su-errolde-tan, 1704. urtean *Uribe* erreferentzia jasotzen da. Hortik aurrera, hainbat dokumentutan izen bera aurkitzen dugu: *Uribe* (1754, BAHF, A453/32. or.), *Uribe* (1825, PE/1825) eta *Uribe* (1967, BUA, CE). Dena den, *Uribe mayor* (1865, DJE, 1/ 148. or.) eta *Urive Echenausia* (1905, BUA, 40. or.) moduko aipamenak ere jasotzen dira. 1859. urteko izendegian *Uribes* agertzen da, zonalde horretan aurkitzen diren baserri guztiei erreferentzia eginez, tartean hemen dugun *Uribetxenagusia* eraikina ere badagoela, noski. XX. mende hasieran, *Urive Palacio* (1910, BUA, RU) moduan agertzen da Berrizko Udal-errola batean. Auzotarren artean, eta oro har herrian, *Kátxarrona*, *Uribe* eta *Tabérnie* formekin ere ezagutzen da etxe hau.

Oso baserri etxe handia da. Hiru bizitza ditu gaur egun eta zaharberritze sakona izan du. Leiho baten gainean 1709ko data badu ere, bere rococo estiloko armariak hamarkada batzuk beranduago egin zitekeela diosku, eta bere neurri eskergak ere hori pentsarazten du. Argi dago baserriaren fatxada planteatu zenean, etxearen ardatza nabarmentzea izan zela irizpidea. Ez da guztiz simetrikoa, ezkerraldea zerbait zabalagoa delako, baina apenas igartzen da hori. Erdian atartera sartzeko arku paregabea dauka eta bere gainean, Uribetarren armaria eta bi leiho, albo banatan. Lerrokatuta, ganbaran, beste bi leihotxo. Eta izkinetara, leihoak beheko eta lehenengo solairuan (hauetan bi, balkoi bihurtuta azkeneko erreforman), eta ganbaran ere bai, baina txikiagoak. Bi isuritako teilatua dauka, miru buztana deritzanarekin atzealdean.

toponimia

Bizkaian ohikoa da etxe izenak oso luzeak izatea, luzeenak Euskal Herrian lehenengo osagaia auzo izena izaten delako. Sarritan auzo izenaren oinarria etxe baten izena da. Etxe bakarra egon zen eta bigarren bat eraikitzean zerbait bereizgarri gehitzen zioten berriari eta gehienetan zaharrari. Denboraren poderioz auzoa sortzen zen eta etxe guztiek zuten hasiera bera zuen izena. Ahoz, gehienetan bigarren zatia besterik ez da erabiltzen. Kasu honetan "Uribe auzoko etxe nagusia" da, izenak argi erakusten duen bezala (**Ikus Uribealdekoa**).